

Non eta noiz izango dira azterketak?

Barakaldoko BECen: **5. eta 6. pabiloietan, maiatzaren 7an.**


Zer gomendatzen dizugu eramatea azterketa-egunean?

- Maskara kirurgikoa edo FFP2

Zer eraman behar duzu ezinbestez azterketa-egunean?

- NANA
- Boligrafo urdina edo beltza
- Identifikazio-orri biak


Identifikazio-orriak zeuk eraman behar dituzu inprimatuta (inprimatu alde batetik bakarrik):



Orrri batean zure datuak agertzen dira. Beste orrian, aldiz, QR kodea dago, zure anonimotasuna bermatzeko. **Kodea duen orria idazlanaren orriarekin batera entregatu beharko duzu azterketa-egunean eta bestea zeuretzat izango da.**

IDENTIFIKAZIO ORRIA

IDAZTEKO ORRIA

Nola lor ditzakezu identifikazio-orriak?

Identifikazio-orriak AZTERNET aplikaziotik deskargatu eta inprimatu behar dituzu helbide honetan:

www.ivap.euskadi.eus – euskara – hizkuntza-eskakizunak – Azternet

Baina, horretarako, **ziurtagiri digitala** behar duzu.



IVAPek **B@kQ** txartel birtuala gomendatzen dizu ziurtagiri digital gisa. Honako helbide honetan aurkituko duzu non eta nola eskatu:

<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

B@kQ txartel birtuala lortzen duzunean, e-mail bat jasoko duzu zure klabeekin (itsasontzi-jokoa erabiltzeko zenbaki- eta letra-konbinazioa eta pasahitza) eta horien bidez Azterneten sartu ahal izango zara.

Horrelako pantaila bat agertuko zaizu Azterneten sartzeko:



Identifikatu **Itsasontzi-jokuaren** bidez

- >> Onartutako txartelak
- >> Ohiko galderak

Erreferentzia-zenbakia

Pasahitza

Pasahitza ahaztu duzu?

Koordenatuak

Datuak ezabatu

H A I

5	3	4	2	7
0	6	8	9	1

jarraitu


Zure B@KQ txartelak ez badu itsasontzi-jokoa erabiltzeko klaberik, B@KQ + SMS kodea aukera erabili behar duzu:



Eremu guztiak beteta, aplikaziora sartuko zara.

Ibilbide honetan: **Eskabideak – HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK – Eskabideen kontsulta eta jarraipena** eremuan klik eginda, oraingo deialdiko zehaztasun guztiak aurkituko dituzu, identifikazio-orriak deskargatu eta inprimatzeko aukera barne.

< Hasiera orria



Zer ordutan hasiko dira azterketak?

1. HE 17:30ean
2. HE Txanda bi egongo dira: bata 09:00etan eta bestea 10:00etan. KONTUZ! *
3. HE Txanda bi egongo dira: bata 12:30ean eta bestea 13:30ean. KONTUZ! *
4. HE 16:30ean

* Beherago kontsulta ezazu zein txandatan egokitu zaizun.

Zenbat denbora lehenago joan behar duzu BECera azterketa-egunean?

Gomendatzen dizugu **ordu erdi** lehenago joatea, baina ez askoz ere lehenago jende-pilaketak ekiditeko.

Lagunduta sar zaitetzke BECera?

Ez; oraingo honetan, **azterketariak baino ez dira sartuko.**

Nondik sartu behar duzu BECera?

BECeko sarrera nagusitik sartuko zara. **Ondo begiratu zer pabiloitan, ordutan eta gunetan egin behar duzun azterketa!** Halaber, pertsonen arteko segurtasun-distantzia gorde beharko duzu sartzean eta sarrerako eskailerak igotzean.

* Zer pabiloitan, ordutan eta gunetan egin behar duzu azterketa?

1. HE 5. PABILOIA 17:30				
H.E.	ORDUA	PABILOIA	GUNEA	ABIZENAK
1. HE	17:30	5. PABILOIA	ATURRI	ABRAIRA - BALZA
1. HE	17:30	5. PABILOIA	BAIA	BARAJAS - CLAVER
1. HE	17:30	5. PABILOIA	ERROBI	COBOS - FERRERO
1. HE	17:30	5. PABILOIA	IRATI	FLORES - GOYA
1. HE	17:30	5. PABILOIA	LEA	GRACIANTEPARALUCETA - LOUREIRO
1. HE	17:30	5. PABILOIA	NERBIOI	LUCAS - MURILLO
1. HE	17:30	5. PABILOIA	ORIA	NAVARRO - RAÑO
1. HE	17:30	5. PABILOIA	UROLA	REAL - SANTIN
1. HE	17:30	5. PABILOIA	ZADORRA	SANTOS - ZUBIETA

2. HE 1. TXANDA				
TXANDA	ORDUA	PABILOIA	GUNEA	ABIZENAK
1. TXANDA	09:00	6. PABILOIA	ARATZ	ABAD - ARAMBURU
1. TXANDA	09:00	6. PABILOIA	GORBEIA	ARANA - BARTUREN
1. TXANDA	09:00	6. PABILOIA	HERNIO	BASAGOITI - CAMPOS
1. TXANDA	09:00	6. PABILOIA	KOLITZA	CANCELO - CURIEL
1. TXANDA	09:00	6. PABILOIA	LARHUN	DE ANDRES - ERRANDOSORO
1. TXANDA	09:00	6. PABILOIA	ORHI	ESCALZA - FUERTES
1. TXANDA	09:00	6. PABILOIA	SOLLUBE	GALAN - GIMENO
1. TXANDA	09:00	6. PABILOIA	TXINDOKI	GOCHI - GURIDI
2. HE 2. TXANDA				
TXANDA	ORDUA	PABILOIA	GUNEA	ABIZENAK
2. TXANDA	10:00	5. PABILOIA	ATURRI	GUTIERREZ - IZURIETA
2. TXANDA	10:00	5. PABILOIA	BAIA	JAEN - LOPEZ
2. TXANDA	10:00	5. PABILOIA	ERROBI	LORENZO - MENTXAKA
2. TXANDA	10:00	5. PABILOIA	IRATI	MERA - ORUESAGASTI
2. TXANDA	10:00	5. PABILOIA	LEA	OSA - POZUELO
2. TXANDA	10:00	5. PABILOIA	NERBIOI	PRADA - ROYO
2. TXANDA	10:00	5. PABILOIA	ORIA	RUANO - SANTOS
2. TXANDA	10:00	5. PABILOIA	UROLA	SANZ - URIBARRENA
2. TXANDA	10:00	5. PABILOIA	ZADORRA	URKIA - ZURINAGA

3. HE 1. TXANDA				
TXANDA	ORDUA	PABILOIA	GUNEA	ABIZENAK
1. TXANDA	12:30	6. PABILOIA	ARATZ	ABAD - ARALUZE
1. TXANDA	12:30	6. PABILOIA	GORBEIA	ARANA - BAKAIKOA
1. TXANDA	12:30	6. PABILOIA	HERNIO	BALERDI - BUSTAMANTE
1. TXANDA	12:30	6. PABILOIA	KOLITZA	CABALLERO - CURIEL
1. TXANDA	12:30	6. PABILOIA	LARHUN	DA SILVA - ESTANKONA
1. TXANDA	12:30	6. PABILOIA	ORHI	ESTEBAN - GARAY
1. TXANDA	12:30	6. PABILOIA	SOLLUBE	GARCES - GOMEZ
1. TXANDA	12:30	6. PABILOIA	TXINDOKI	GONZALEZ - IBAÑEZ

3. HE 2. TXANDA				
TXANDA	ORDUA	PABILOIA	GUNEA	ABIZENAK
2. TXANDA	13:30	5. PABILOIA	ATURRI	IBARGUREN - LAZCANO
2. TXANDA	13:30	5. PABILOIA	BAIA	LEBRERO - MARQUINEZ
2. TXANDA	13:30	5. PABILOIA	ERROBI	MARTIARTU - MONTERO
2. TXANDA	13:30	5. PABILOIA	IRATI	MORAGUES - ORUE
2. TXANDA	13:30	5. PABILOIA	LEA	OSA - PIRIZ
2. TXANDA	13:30	5. PABILOIA	NERBIOI	POLVOROSA - ROLLAN
2. TXANDA	13:30	5. PABILOIA	ORIA	ROMERO - SANJUAN
2. TXANDA	13:30	5. PABILOIA	UROLA	SANTAMARIA - UNZUETA
2. TXANDA	13:30	5. PABILOIA	ZADORRA	URANGA - ZURRO

4. HE 6. PABILOIA 16:30				
H.E.	ORDUA	PABILOIA	GUNEA	ABIZENAK
4. HE	16:30	6. PABILOIA	ARATZ	ABADIA - ARRUTI
4. HE	16:30	6. PABILOIA	GORBEIA	ARTEAGA - CASTRO
4. HE	16:30	6. PABILOIA	HERNIO	CECIAGA - EZKERRA
4. HE	16:30	6. PABILOIA	KOLITZA	FAIDO - HIDALGO
4. HE	16:30	6. PABILOIA	LARHUN	IBABE - MARCOS
4. HE	16:30	6. PABILOIA	ORHI	MARDARAS - PEÑAGARIKANO
4. HE	16:30	6. PABILOIA	SOLLUBE	PEREDA - TELLERIA
4. HE	16:30	6. PABILOIA	TXINDOKI	TOLARETXIPI - ZUMETA

Zer egin behar duzu zuri egokitu zaizun gunera heltzean?

NANa eta identifikazio-orriak eskuan dituzula, zaintzaileak zehazten duen lekuan jesarri beharko duzu; eta NANa, identifikazio-orriak eta boligrafoa baino ezin izango dituzu eduki mahai gainean. Guneetan bermatuta egongo da segurtasuneko gutxieneko distantzia azterketarien artean.

Zenbat denbora iraungo du azterketak?

- 1. HE 1 h
- 2. HE 1h 10'
- 3. HE 1h 25'
- 4. HE 1h 45'

Zenbat ariketa izango dira?

Hizkuntza-eskakizun guztietan irakurmen-probak bi ariketa izango ditu, eta idazmen-probak ariketa bakarra.

Azterketak irauten duen bitartean komunera joan zaitezke?

Ez, azterketak askoz laburragoak dira oraingo honetan; beraz, oso larria ez bada, ezin izango zara komunera joan.

Azterketa lehenago amaitzen baduzu, BECetik alde egin dezakezu?

Txanda bat baino gehiago dauden hizkuntza-eskakizunetan, hau da, 2. eta 3. HEetan, ezin izango da irten azterketa hasten denetik gutxienez ordubete pasatu arte. Era berean, azterketak amaitu ondoren, pabiloiko atzeko atek erabili beharko dira bertatik irteteko.

Nola lor dezakezu azterketara joan izanaren ziurtagiria?

Identifikazio-orriak bezala, AZTERNET aplikaziotik deskargatu eta inprimatu beharko da.

Garbitasuna dela eta, zer neurri hartuko ditu IVAPek?

Azterketariak BECera sartzean eta pabiloitik irtetean, gel hidroalkoholikoa izango dute eskura. Horrez gain, azterketa-txanda bakoitza bukatu eta hurrengo hasi baino lehen, guneak, pabiloiak, komunak eta igarobide guztiak garbitu eta desinfektatu egingo dira.